

JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ZIENTZIEN FAKULTATEA

KORNER ERRUTINEN AZTERKETA GOI ERRENDIMENDUKO EMAKUMEZKOEN FUTBOLEAN



EGILEA: Eneritz Lizaso Alcibar

ZUZENDARIA: Julio Calleja Gonzalez

GRADU AMAIERAKO LANA

IKASTURTEA: 2014-2015

DEIALDIA: 2. Deialdia

ESKERRIK ONENAK

Nire graduko lau urteak inoiz amaituko ez zirela eta agurtzeko unea helduko ez zela pentsatu izan dut sarri. Hala ere, heldu dela dirudi eta beraz, hainbat urtetan zehar eginiko lanari amaiera borobil bat eman dezadan lagundu nauten irakasle, familiarreko eta lagunei eskertzen hasi nahi dut. Bai eta lau urte hauetan zehar bidean topatu eta beraien babesa eman nauten guztiei ere.

Eskerrak eman, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien graduko irakasle guztiei. Batzuekin une zail eta gogorak pasa ditudan arren, guztiek emandako gomendio eta momentu positiboekin geratzen bainaiz.

Bestalde esker bereziak, nire gradu amaierako lan honetan konfiatu, babestu eta aurrera jarraitzeko argibideak eman dizkidan irakasleari. Julio Callejari hain zuzen ere. Nire erabaki eta ideia lehen momentutik onartu izanagatik eskertzeaz gain, une oro nire gainean egon izanagatik ere eskertu nahi nioke. Asier Zubillagari ere esker bereziak, ikerketarekin arazoren bat izan dudanean, berau bideratzeko emandako gomendio eta laguntzagatik.

Era berean nire eskerrik zintzoenak, Real Sociedad S.A. Deari. Nire graduko praktikak bertan egiten usteaz gain, lan hau aurrera eramateko behar izan dudana materiala dudarik gabe eskaini izanagatik.

Aipamen berezia, Erasmus programaren bidez, Ingalaterrara, Gloucestershire unibertsitatera joan eta Gasteizko fakultatean jaso izan ezin ditudan ikasgaiak eskaini dizkidan irakasleei. Azken batean, gai honen oinarria ikasgai horietan ikasitakoaren partiduen analisisian baitago.

Amaitzeko eskerrik beroenak etxekoei. Bai guraso, anai, aiton-amona, osaba-izeba, lehengusu eta lagunei. Gurasoei, berauengatik izango ez balitz, garai batean nire amets izandakoak egi bihurtzeko aukerarik ez izateaz gain, gradua egiteko aukerarik ere izango ez nukeelako. Anaiari, nire zaletasun berak izanik, etorkizun batean nire bidaia lagun izan dadin eta azkenik Laurari, nire lagunik onena izateaz gain, nire amets, esfortzu eta erronken bidelagun ere badelako.

LANAREN AUKERAKETA

Txikitatik argi izan dut zeinen garrantzitsua den kirol mundua niretzat. Jolas, joko, dibertsio edota denbora pasaz hartzen nuen arren, urteekin nire iritzi eta gogoak aldatzen joan dira eta etorkizunean nire bizimodutzat hartu nahi dut.

Kirola egiteko unea, lagunekin elkartu, barre batzuk bota eta disfrutatzeke momentutzat hartzen nuen eta oraindik hala egiten dut sarri. Aitak betidanik eraman izan dit kirol ezberdinak frogatu eta praktikatzera, baita ikustera ere.

Zarautzeko hondartzan hasi zen guztia, hamar bat urte nituela. Orokieta herri eskolako nire adin bereko neska guztiak elkartu eta larunbatetan kirol ezberdinetan parte hartzeko taldea osatu genuen.

Lau urtetan hainbatetan itxarondako unea iritsi da eta horrekin batera, urte hauei amaiera borobila emateko erantzukizuna. Gradu amaierako lana, gradua hasten den momentutik hainbat burutan bueltaka dabilen buruhaustea izan ohi da. Zerren inguruan idatzi eta lana aurrera eramaten lagunduko dizun zuzendaria aukeratzea, ez da batere erraza.

Graduan zehar bizitako momentuak, ikasitako kontzeptuak eta norberaren nahiak eta interesak, lan bakar batean biltzea da nire erabakia. Hainbat urteetan zehar futbolarekin izan dudana lotura zuzenak eta esperientziak, etorkizuna kirol horren aldetik bideratzera eraman nau.

Gainera, azken lau urteetan zehar Gasteizen, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien inguruko graduan eginiko ikasketek ere, lotura zuzena daukate nire gradu amaierako lanaren aukeraketarekin eta landuko diren kontzeptu eta metodologiarekin. Hala ere, ezin da alde batera utzi ezta garrantzia kendu ere, nire graduako hirugarren urtean, Euskal Herriko Unibertsitateak unibertsitateko trukea egiteko emandako aukerari. Izan ere, erasmus programaren bidez, Ingalaterrara joan eta Gasteizen ikasteko aukerarik ez nituen ikasgaiak jasotzeko eta ikasketa prozesua aberasteko aukera ireki zidan.

Bost hilabetez, Gloucestershire Unibertsitatean ingelesa ikasi eta mundu osoko jendearekin bizitzeko aukera izateaz gain, espedientearen burututako ikasgai horietako

batek, “Performance Analysis of Elite Performanceck” hain zuzen ere, futbola aztertu eta horren inguruan ikertzeraz bultzatu ninduen.

Azkenik, aurtengo denboraldian Real Sociedad SADko futboleko neskekin nire praktikak burutu eta beraueganako interesak ere garrantzia handia izan du lagina aukeratzekoan.

Beraz, aukeraketa egitera bultzatu nauten faktore guztiak azalduta, aukera ezin hobea iruditzen zait gradu amaierako lana aprobetxatzea, urte hauetan ikasitakoa praktikan jarri eta etorkizunari begira, nire nahi eta interesak zehazten joateko.

Eneritz Lizaso Alcibar

LABURPENA

Lan honen abiapuntua, goi errendimenduko emakumezkoen futbol partida batean ematen diren korer errutina ezberdinak aztertu eta horietatik eraginkorrenak diren ekintza eta jokaldiak identifikatzea izan da.

Ikerlanean, hiru denboralditan zehar (2012-2013; 2013-2014; 2014-2015), Espainiako emakumezkoen futboleko lehenengo mailako, hau da Superligako taldeek 51 partidutan burututako korer jaurtiketak aztertu dira. Horretarako erabili den metodologia, bideo analisi eta analisi notazionala izan dira. Bideoan jasotako informazioa, aldagai guztiak kontutan hartzen dituen taula berezi batzuetan bildu dira. Horietan, jokaturako partidua, partiduko unea (0'-15'; 15'-30'; 30'-45'; 45'-60'; 60'-75'; 75'-90'), kornerra jaurtitzeko aldea (eskuin edo ezkerra), jaurtiketa gauzatutako hanka (eskuina edo ezkerra), jaurtiketa gauzatzeko modua (luze edo motza), jaurtiketaren helmuga puntua (lehenengo zutoina, erdira edo bigarren zutoina) eta azkenik, jaurtiketaren eraginkortasuna mailakatu da (gola, errematea atera, errematea atetik kanpora, aurkariak urrundu, aurkariak kanpora bota edo jaurtiketa kanpora) aldagaiak berezi dira.

Tauletan jasotako datu guztiak Microsoft Excel eta IBM SPSS statistic 23 programan bildu dira ekintzen deskribapena (bataz besteko eta desbideratze estandarra), frekuentzia (kopuru eta portzentajeak) eta aldagaiek eraginkortasunarekin duten erlazioa ateratzeko. Emaitzek adierazten dutenez, bataz beste 7,88 korer jaurtiketa burutu dira 56 partidutan 2,97ko desbideratze tipikoaz, horietatik bi kasutan bakarrik lortu da jokaldia golean amaitzea eta jaurtiketen %22,89an errematatzea. Gainera, korer jaurtiketen bidez, talde erasotzaileek gol aukera gutxi sortzen dituztela ikusi da. Baita ohiko errutinak luzez jaurtitzea, lehenengo zutoin aldera eta eskuin hankaz direla ere.

Emaitzak ikusita ondoriozta daiteke, korer jaurtiketak erasoko egoeran gehiago landu beharko liratekeela eraginkortasun handiagoa lortu eta gol aukera gehiago sortzeko.

Hitz gakoak: futbola, emakumeak, goi errendimendua, partidu analisia, kornerrak, analisi notazionala.

RESUMEN

El punto de partida de este trabajo es analizar e identificar las distintas rutinas de saques de esquinas que se ejecutan durante los partidos de fútbol femenino en alto rendimiento. Al igual que identificar las rutinas que más efectividad crean para el equipo atacante.

Se han analizado 402 saques de esquina ejecutados en 51 partidos de las temporadas 2012-2013, 2013-2014 y 2014-2015 de la primera división española de fútbol femenino. Para ello, se ha utilizado la metodología del video análisis y análisis notacional. Con la información recopilada de los partidos, se ha diseñado una planilla con distintas variables (el tiempo del partido: 0'-15'; 15'-30'; 30'-45'; 45'-60'; 60'-75'; 75'-90', el lado por el que se ejecuta el saque: derecho, izquierdo, la pierna que se utiliza para ejecutar el saque: derecho, izquierdo, el modo para ejecutar el saque: en largo o en corto, el destino del balón: primer palo, mitad, segundo palo, jugada personal, centro o alejarse de la portería y por último la efectividad del saque de esquina para el equipo atacante: gol, remate a puerta, remate fuera de puerta, despeje del defensa, fuera el defensa, directo fuera).

Después de analizar los videos varias veces y anotar las jugadas en la planilla, todos los datos se han analizado en Microsoft Excel y IBM SPSS statistic 23. Se han sacado las frecuencias y los porcentajes de cada variable y se han creado tablas cruzadas con cada variable para identificar la relación que puedan tener con la efectividad del saque. Los resultados del estudio muestran, que se han ejecutado una media de 7,88 ($\pm 2,97$) saques de esquina por partido y que no han sido muy eficaces para el equipo atacante ya que solo 2 saques han terminado en gol y solo el 22,89% de los corners analizados han sido rematados. Además, las rutinas más repetidas han sido el saque largo con pierna derecha y dirigida al primer palo.

La conclusión que se saca en esta investigación es que no se trabajan demasiado o suficiente los saques de esquina en ataque.

Palabras claves: fútbol, mujeres, alto rendimiento, análisis de partido, saques de esquinas, análisis notacional.

AURKIBIDEA

| | |
|---|----|
| 1. Laburdurak | 8 |
| 2. Taulen zerrenda | 10 |
| 3. Irudien zerrenda | 11 |
| 4. Sarrera | 12 |
| 5. Helburuak | 17 |
| a. Orokorrak | 17 |
| b. Espezifikoak | 17 |
| 6. Metodologia | 18 |
| a. Parte hartzaileak | 18 |
| b. Materiala | 20 |
| c. Prozedura | 23 |
| d. Data analisia | 26 |
| 7. Emaitzak | 27 |
| 8. Eztabaida | 41 |
| 9. Ondorioak | 46 |
| a. Erabilera praktikoak | 48 |
| b. Ikerketaren indargune eta sendotasunak | 48 |
| c. Ikerketaren mugak | 49 |
| d. Etorkizunerako ildoak | 50 |
| 10. Erreferentzia bibliografikoak | 52 |
| 11. Webgrafia | 54 |
| 12. Eranskinak | 55 |

LABURDURAK

1: lehenengo zutoina

2: bigarrenengo zutoina

Ak: Aurkariak kanpora

Atco. Madrid: Atletico Madrid

Athletic: Athletic de Bilbao

Au: Aurkariak urrundu

Be.: berdinketak

Denb.: denboraldia

E: erdira

Ea: Errematea atera

EaK: Errematea atetik kanpo

EHU: Euskal Herriko Unibertsitatea

Ga.: galdutakoak

I.: irabazitakoak

K.: Kanpora

Kam: Kamera

L: jaurtiketa luzea

M: motzeko jokaldia

Oviedo: Oviedo Moderno

Punt.: puntuazioa

PX: partidua eta zenbakia

R.S: Real Sociedad

Sig.: Signifikazioa

T1: 0'-15'

T2: 16'-30'

T3: 31'-45'

T4: 46'-60'

T5: 61'-75'

T6: 76'-90'

TAULEN ZERRENDA

Taula 1. Korner jaurtiketen inguruan eginiko azterketetan aztertutako aldagaiak

Taula 2. Ikerketan aztertutako partiduak denboraldizka banatuta

Taula 3. Ikerketaren prozeduran emandako urrats nagusiak

Taula 4. Korner jaurtiketen ohiko errutinak aldagai ezberdinak behatuz

Taula 5. Korner eraginkortasuna partiduko bi zatietan

Taula 6. Korner jaurtiketen eraginkortasuna partiduko interbaloen arabera

Taula 7. Korner jaurtiketen eraginkortasuna jaurtitzeko moduaren arabera

Taula 8. Korner jaurtiketen eraginkortasuna ateratako alde eta hankaren arabera

Taula 9. Korner jaurtiketen eraginkortasuna baloiak hartutako helmugaren arabera

Taula 10. Korner jaurtiketen eraginkortasuna erremate eta errematerik gabearen arabera

Taula 11. Norgehiagoka ez zuzen eta zuzenetako korner jaurtiketak aldagai ezberdinen arabera

IRUDIEN ZERRENDA

Irudia 1. Canon Legria HF G10 bideo kamera

Irudia 2. Youtube bidezko kórner irudia

Irudia 3. Bideo kamera bidezko kórner irudia

Irudia 4. Plantilla osatzen duten dimentsio eta kategoria sistemak

Irudia 5. Superligako 2012-2013, 2013-2014 eta 2014-2015 denboraldietako sailkapenak

Irudia 6. Kornerraren ezker aldeko arearen zona ezberdinak

Irudia 7. Kornerraren eskuin aldeko arearen zona ezberdinak

Irudia 8. Kórner jaurtiketa ateratako alde eta hankan oinarrituta

Irudia 9. Kórner jaurtiketan ateratako hankaren aldean oinarrituta

Irudia 10. Baloia helmuga kórner jaurtiketetan

Irudia 11. Kórner motzen atera osteko ekintza

Irudia 12. Norgehiagoka ez zuzen eta zuzenetan jaurtitako kórnerren eraginkortasuna

SARRERA

Partiduaren azterketak lehiaketa batean zehar ematen diren portaera ezberdinak grabatu eta aztertzean datza. Jokalari konkretu batean, baloiaren inguruan mugitu eta parte hartzen duten jokalarietan edota talde osoan oinarritu daiteke (Carling, Williams eta Reilly, 2005; Clemente eta lank., 2012). Ikusle asko dira partidua zuzenean ikusita, jokalarien errendimenduaren edota jokaldi batean gertatutakoaren inguruan hitz egiten dutenak, zuzen ari diren jakin gabe. Entrenatzaileak berak ere, bere jokalarien errendimenduaren inguruko informazio asko gal dezake partidua berriz grabatuta ikusteko aukerarik izan ezean (Carling eta lank., 2005; Muñoz eta Alonso, 2009; Alonso eta Cásais, 2009). Partiduko gertaeren %30-%40 bakarrik gogoratu dezaketela ikertu dute Alonso eta Casáisek (2012).

Azterketa notazionalak, talde kirolean, hala nola futbolean, non jokalarien teknikak nahiz taktikak garrantzia handia hartzen duen (James, Mellalieu, eta Hollely, 2002; Hughes eta lank., 2012), entrenatzailearentzat oso erabilgarri eta interesgarria izan daitekeen informazioa ahalbidetzen du, entrenatzaileari feedback hobea eskainiz. Horrela entrenatzaileak bere jokalarien errendimendua hobekien aprobetxatzeaz gain, aurkariaren ohiko portaera eta jokaeren aurrean erantzuna ematen erakutsiko die (Clemente eta lank., 2012). Bestetik, analisi notazionalak gezurrik esaten ez duen erregistroa ahalbidetzen du, datuak biltzeko erabilitako metodologia fidagarria eta objektiboa izan eta sistema partiduaren mailara egokitu bada behintzat (Carling eta lank., 2005).

Entrenatzaileari emaniko informazioa, garrantzitsua eta erabilgarria izan behar da errealitatea ulertu ahal izateko (Muñoz eta Alonso, 2009). Horrez gain, zehaztasunez diseinatutako sistema ezinbestekoa izango da, errendimenduan eta ekintzen gauzatzean duen inpaktua dela eta (Clemente eta lank., 2012).

Taldearen arrakasta gola sartzeko gaitasunak zehazten eta markatzen du, hau da norgehiagoka batean gol gehien sartzen dituen taldeak irabaziko du. Partidua irabaztean bere helburu nagusia betetzen du taldeak. Izan ere, talde eta jokalari batentzat ez dago gola sartzea bezalakorik, ezta talde horren jarraitzaileentzat gola geldikako jokaldi batetik etortzea bezalakorik ere (Simon eta Reeves, 1997).

Helburua bete arren, partida ez da alde batera utzi behar. Hurrengo partidu edota txapelketan berriz irabazle atera eta hobekien errenditzeko zuzenketak egiteko erabiltzen dute entrenatzaile eta taldeko teknikariek (Carling eta lank., 2005). Baloia jabetza izatean ezarri eta erabiltzen den taktika zuzentzen saiatzen dira, talde baten gola sartzeko potentzialtasuna ziurtatzeak pisu handia baitu (Mahoney, Wheeler eta Lyons, 2012).

Futboleko geldikako jokaldiak (kórner, penalti, alboko sakea, falta zuzen edota ez zuzenek), bakarka edo taldeka, araututako etenaldi baten ostean baloia berriz jokoan jartzeko gauzatzen diren ekintzak dira (Muñoz eta Alonso, 2009; Sanchez-Flores, 2012). Bi motetakoak bereizten dira. Batzuetan (kórner, penalti, falta zuzena, hasierako sakea edota ateko sakea) gola zuzenean sartu daiteke. Beste batzuetan berriz (falta ez zuzena, alboko sakea edota baloi neutrala*) gola sartu ahal izateko lehenik jokalaria batek baloia ukitu beharra dauka, talde berekoa nahiz aurkakoa izan (Silva, 2011).

Geldikako jokaldiak, indar eta garrantzia handia hartu dute azken urteetan, partida irabaztera eramane eta gol erabakigarriak sartzera eramaten duten egoeratzat hartzen baitira (Borrás eta Sainz, 2005; Carling eta lank., 2005; Muñoz eta Alonso, 2009; Silva, 2011; Sanchez-Flores eta lank., 2012 eta Maneiro, 2014). Jokaldi horien artetik %25-50a golean amaitzen direla estimatzen da, bigarren denborako gol estatistikak lehenengo denborakoak baino hobea gertatzen direlarik (Sanchez-Flores eta lank., 2012).

Kórnera, geldikako jokaldi horietako bat da, taktikako atal garrantzitsua dena. Baloia jokoan jartzeko asmoz, defentsan dagoen jokalaria batek baloia ukitu eta atezainaren atzeko marratik baloia kanpora joatean jaurtitzen dena hain zuzen ere. FIFA, (2015) ezarritako 17. arauak arautzen du eta honako hau dio:

- Baloia, baloia kanporatua izan den kórner bandera gertuen dagoen koadrantean kokatzen da.
- Ezin da ertzeko bandera kendu.
- Talde erasotzaileko jokalaria batek jaurti behar du kórnera.
- Baloia jokoan izango da jokalaria batek baloia ukitzearekin batera.

- Kornerra gauzatu duen jokalaria ezingo du baloia bitan jarraian ukitu baloia beste jokalaria batek ukitu aurretik.
- Defentsako taldeak gutxienez 9,15 metroko distantzia utzi behar du ertzeko eremutik baloia martxan jarri arte.

Partidetan sarri ematen den ekintza da, 10-11 inguru (Sánchez-Flores eta lank., 2012). Bere eraginkortasuna, ekintzan parte hartzen duten aldagaien (jaurtiketaren aldea, erabilitako hanka, baloiak hartutako bidea, erasotzaile eta defentsek eginiko mugimenduak, baloiak eginiko ibilbidea edo baloiak hartzen duen altuera) arabera aldatu egiten da.

Jokaldien automatizazio eta prezisioa bilatzeko, errutina berriak landu daitezke entrenamenduetan. Ezinbestekoa izan daiteke talde erasotzailearentzat taktika eta errutina berriak ikastea. Izan ere, denbora luzez taktika berdinak erabiliz gero, aurkako taldeak azkar ikasten du nola geratu erasotzailearen jokaldiak. Gainera horren garrantzitsuak diren golak ekidite ditu.

Lago eta Anguerak (2003) esan zutenaren arabera, futboleant, beste kirol modalitate batzuekin alderatuz gero, taktikak garrantzia handiagoa hartzen du. Izan ere, talde osoaren eta jokalaria jakinen arrakastan eragin handia baitu.

Egoera honen adibide ona da, azken partidetan Espainiako taldeak goletan izan duen beherakada aurreko emaitzekin konparatuta. Aurkariaren jokatzeko modua, ohitura eta estiloa aztertzeke erraztasunak dituzte taldeek. Horrela, lehendik defentsako estrategiak prestatu ditzakete partidura begira erabiliko dituztenak. Mara, Wheeler eta Lyons (2012) azaltzen dute prestakuntza taktiko eta estrategia garapen faltak gol aukera gutxi sortzea dakarrela eta ondorioz taldeen emaitzetan hutsuneak sor daitezkeela. Gainera, ohartu ziren, taktika errekurtsu batzuk aplikatzeak, partidu bukaerako emaitzan positiboki eragiten zuela. Talde jakin baten gol gaitasunak nabarmentzeko, zelaiko eremuko posizioaren arabera espezifikatuta, erasoko estrategia gauzatzea ezinbestekoa dela azpimarratu zuten.

Hau da, azken urteetan partiduen amaierako emaitzetan, garrantzia hartu dute geldikako jokaldiek, jokoan zehar aurkaria ustekabeant harrapatzeke, lehendik antolatutako estrategia taktikotzat hartzen hasi baitira. Bestalde, kontuan hartzekoa da

golak sartzeko aukerak igo egiten direla bigarrenengo zatian Championseko eta Ligako partidak aurrera joan ahala. Gainera, badira ebidentziak norgehiagoka gero eta berdinuago nahiz zuzenagoa izan, geldikako jokaldietako mugimenduek orduan eta indar eta garrantzia handiagoa hartzen dutela adierazten dutenak (Sánchez-Flores eta lank., 2012).

Lago eta Anguerak (2003) espainiar ligako partidetan izandako estrategia eta geldikako jokaldien inguruan eginiko ikerketan argi geratu zen, partiduan zehar jokaldi hauek izaten duten eraginkortasuna. Izan ere, emaitzei begiratuz gero, aipagarria da golen %30 geldikako jokaldietatik datozela.

Beste ikerketa batzuk kontuan hartuta, hala nola Silvaren (2011) futboleko geldikako jokaldien praxien tesia, ez dago zalantzarik kornerrak erabakigarriak direla partiduetan. Baina, Silvak (2011) kornerra ateratako aldearen (taula 1) eta jaurtiketak hartutako norabide eta zonaren arabera emaitza ezberdinak aurkitu zituen jaurtiketaren eta errematearen eraginkortasunean. Hori horrela, azpimarratu zuen jokaldi hauetan eremu eta zona ezberdinek duten garrantzia (taula 1). Tesi hau kontuan hartuta, lan honetan ere, kornerrak futbol zelaia zenbait zonatan banatuta, gertueneko eremua, urrutieneko eremua eta zutoinen artekoa besteak beste, aztertuko dira. Bai eta jaurtiketa, gol, galdutako baloi eta kanpora jaurtitako baloiak ere (taula 1).

| ALDAGAIAK | ITURRIA |
|--------------------------|---|
| Iraupena | <ul style="list-style-type: none"> - Silva (2011) - Sánchez-Flores eta lank. (2012) |
| Jaurtiketa aldea | <ul style="list-style-type: none"> - Carling eta lank. (2005) - Sánchez-Flores eta lank. (2012) |
| Hanka aldea | <ul style="list-style-type: none"> - Borrás eta Sainz de Baranda (2005) - Carling eta lank. (2005) - (2011) - Sainz de Baranda eta Lopez-Riquelme (2012) |
| Jaurtitzeko modua | <ul style="list-style-type: none"> - Carling eta lank. (2005) - Sánchez-Flores eta lank. (2012) |
| Baloiaren helmuga | <ul style="list-style-type: none"> - Borrás eta Sainz de Baranda (2005) - Carling eta lank. (2005) - Silva (2011) - Sainz de Baranda eta Lopez-Riquelme (2012) - Sánchez-Flores eta lank. (2012) |
| Bigarren jokaldia | <ul style="list-style-type: none"> - Borrás eta Sainz de Baranda (2005) - Silva (2011) - Sainz de Baranda eta Lopez-Riquelme (2012) |

Taula 1. Korner jaurtiketen inguruan eginiko azterketetan aztertutako aldagaiak

Bestetik, Cárdenas, Conde eta Courelak (2012) eginiko beste ikerketa batean justifikatu zuten, futbol entrenamenduaren antolamenduan, gaitasun fisikoak gaitasun tekniko eta taktikoekin sinkronizatuta landu behar direla, jokalaria, talde eta jokatzeko moduaren beharren arabera.

Emakumezkoen futbolaren inguruan dagoen hutsunea nabarmena da errebisio bibliografikoari begirada bat botaz gero. Urtetik urtera ikerketa gehiago agertzen diren arren, gutxi dira taktika, estrategia edo geldikako jokaldien inguruan eginiko ikerketak. Ikerketa honekin betetzen joan nahi da egun dagoen hutsunea. Proposatutako helburuekin aztertze bide berriak ireki nahi dira.

Laburbilduz, futbol modernoaren etorrerak, futbola ikusteko eta ulertzeko modua aldatu du. Taldeen arrakasta bermatzeko, estrategia eta taktika landu baten beharra sortu da. Entrenatzaileek, bideo analisi edota analisi notazionalera jo dute partiduko unean galtzen duten informazioa bereganatzeko. Aurkaria ustekabean harrapatu eta gol aukerak sortzeko geldikako jokaldiek izan dezaketen garrantziaz hitz egiten hasi da, eginiko hainbat ikerketetako emaitzetan oinarrituz. Korner jaurtiketak dira horien adibide ona.

*Baloï neutrala: bi taldeak baloi jabetzarik gabe daude epaileak baloia lurtean bote batez jarri eta baloiaren jabetza lortzen duten arte.

HELBURUAK

Lan hau burutzera eraman nauten helburuak, helburu orokor eta helburu espezifikoetan bereiziko dira honako lerroetan:

- Orokorrak:
 1. Goi errendimenduko emakumezkoen futbol partida batean korner jaurtiketa batek izan dezakeen garrantzia aztertzea
 2. Goi errendimenduko emakumezkoen futbol partidetan ematen diren korner errutina aztertzea
 3. Goi errendimenduko emakumezkoen futbol partidetan ematen diren kornerren eraginkortasuna aztertzea
 4. Etorkizunerako arlo honetako ikerketa bideak irekitzea
 5. Ikerketa gehiago egitera bultzatzea
- Espezifikoak:
 1. Goi errendimenduko emakumezkoen futbol partidetan gauzatzen den korner errutina nabarmenena identifikatzea

2. Goi errendimenduko emakumezkoen futbol partidako une ezberdinetan korner jaurtiketen eraginkortasuna ezberdina den ezagutzea
3. Goi errendimenduko emakumezkoen futbol partida batean kornerra ateratzeko moduaren arabera eraginkortasuna ezberdina den egiaztatzea
4. Goi errendimenduko emakumezkoen futbol partida batean kornerra ateratako hankaren aldearen arabera eraginkortasuna ezberdina den egiaztatzea
5. Goi errendimenduko emakumezkoen futbol partida batean kornerra ateratako aldearen eta hankaren aldearen arabera eraginkortasuna ezberdina den egiaztatzea
6. Goi errendimenduko emakumezkoen futbol partida batean korner jaurtiketa burutu ostean baloiak hartzen duen eremuaren arabera kornerrak izan dezakeen eraginkortasun ezberdintasunak ezagutzea
7. Goi errendimenduko emakumezkoen futbol partida baten norgehiagoka ez zuzen eta zuzenetan gauzatzen diren korner errutinak identifikatzea
8. Goi errendimenduko emakumezkoen futbol partida baten norgehiagokaren berdintasunaren arabera korner jaurtiketen eraginkortasuna identifikatzea

METODOLOGIA

- Parte hartzaileak edo lagina:

Espainiako emakumezkoen futboleko lehenengo mailako jokalarien 2012-2013, 2013-2014 eta 2014-2015 denboraldietako 51 partidu erabili dira lan honetako azterketa egiteko. 2012-2013 denboraldiko 19 partidu, 2013-2014 denboraldiko 19 partidu eta 2014-2015 denboraldiko 13 partidu hain zuzen ere. Partidu horietan, 402 korner jaurtiketa eman ziren eta horiek izan dira aztertutakoak.

| 2012-2013 denboraldia | 2013-2014 denboraldia | 2014-2015 denboraldia |
|------------------------------------|------------------------------------|----------------------------------|
| 1. R.S – Olivenza | 20. R.S – Barcelona | 39. R.S – Atco. Madrid |
| 2. R.S - Atco. Madrid | 21. R.S – Sant Gabriel | 40. R.S – Oviedo |
| 3. R.S - Sporting Huelva | 22. R.S – Sevilla | 41. Espanyol – R.S |
| 4. R.S – Sevilla | 23. R.S – Valencia | 42. R.S – Valencia |
| 5. R.S – Levante | 24. R.S – Granada | 43. R.S – Sporting de Huelva |
| 6. Athletic – R.S | 25. R.S – Rayo | 44. R.S – Collerense |
| 7. R.S – Sant Gabriel | 26. R.S – Prainsa | 45. R.S – Transportes Alcaine |
| 8. R.S – Valencia | 27. R.S – Levante | 46. Barcelona – Santa Teresa |
| 9. R.S – Lagunak | 28. R.S – Athletic | 47. Barcelona – Atco. Madrid |
| 10. R.S – Levante Las Planas | 29. Barcelona – R.S | 48. Barcelona – Oviedo |
| 11. R.S – Collerense | 30. R.S – Atco. Madrid | 49. Barcelona – Collerense |
| 12. R.S – Athletic | 31. R.S – Sporting Huelva | 50. Barcelona – Rayo |
| 13. R.S – Athletic | 32. R.S – Collerense | 51. Barcelona–Fundacion Albacete |
| 14. Barcelona – Sevilla | 33. R.S – Espanyol | |
| 15. Barcelona – Levante | 34. R.S – Oviedo | |
| 16. Atco. Madrid – Athletic | 35. R.S – Levante Las Planas | |
| 17. Atco. Madrid – Sporting Huelva | 36. Barcelona – Athletic | |
| 18. Atco. Madrid – Barcelona | 37. Barcelona – Rayo | |
| 19. Atco. Madrid – Barcelona | 38. Barcelona – Levante Las Planas | |

Taula 2. Ikerketan aztertutako partiduak denboraldizka banatuta

Aztertutako partidu gehienak ligako partiduak diren arren, denboraldi horietan bertan elkarren aurka jokaturako espainiar Kopako partiduak eta Euskal Kopako partiduak ere aztertu dira. Athletic eta R.S, Barcelona eta Rayo eta Atco. Madrid eta Barcelonaren aurkakoak esaterako, izan ere, maila horretako taldeen artean ematen diren kornerrak aztertu nahi izan dira.

Korner bakoitza indibidualki aztertu da, kornerra ateratzen duen taldea kontuan hartu gabe. Hau da, bai etxeko taldearen bai aurkariaren kornerrak aztertu dira.

2008 urtean Helsinkiko deklarazioan adierazi eta arautu bezala, bideo grabaketak aztertzeko EHUko etika komitearen baimena eskatu eta lortu da (eranskina V),

ikerketa beraien kontrolpean egin da, aztertutako babes guztia bermatzeko. Gainera, emakumezkoen futboleko lehen mailako klub bateko partiden grabaketak erabiltzeko baimena lortu da (eranskina I, eranskina III eta eranskina IIII). Partiduetako grabaketak kalitate onekoak direlako eta horiek eskuragarri izatea garrantzitsua eta erabakigarria izan da lagina aukeratzekoan. Baita korer errutinen eraginkortasunaren inguruko data ona eskaini izana ere. Horiez gain, *YouTube*ren (youtube.com) bidez ere kalitate oneko 15 partidu oso lortu dira.

Korer jaurtiketa gauzatzean taldeak kontutan hartu ez diren arren, bideoetan aztertutako taldeen inguruko informazio gehigarria (eranskina VI) bildu eta erreparatu da lortutako emaitzen inguruan ondorio sakon eta errealagoak lortzeko asmotan. Informazio gehigarri hori, taldea osatzen duten jokalarikopurua, denboraldian lortutako sailkapena (irudia 5) eta taldeak ligan duen esperientzia izan dira besteak beste.

- Materiala:
 - Grabaketak:

Grabatzaile profesional batek, Irudia 1.an adierazitako bideo kamera (Canon Legria HFG10) erabiliaz grabatuak izan dira partiduak, zelaiaren erdiko marraren paretik. Jokaldiaren eremuaren arabera, zoom bidez gerturatzen da grabaketa, irudiaren zehaztasun handiagoa lortzeko. Gainera, Youtube web orriaren bidez ere zenbait partidu lortu dira lehen aipatu moduan.



Irudia 1. Canon Legria HF G10 bideo kamera

Hurrengo bi irudietan, aztertutako partiduetako bi adibide adierazten dira. Lehenengoa, Irudia 2. deiturikoa, Youtuberen bidez lortutako irudia da eta bigarrena, Irudia 3.a berriz, bideo kamera bidez lortutakoa.



Irudia 2. Youtube bidezko kórner irudia



Irudia 3. Bideo kamera bidezko kórner irudia

- Behaketarako materiala:

Irudietan jasotako kórnerak, ordenagailuz diseinaturiko plantilla (eranskina VII) batean bildu dira. Plantilla horretan kórner jaurtiketa eginiko momentua, kórnera aterako den aldea, ateratzeko erabiliko den hanka, jaurtiketa egiteko modua, jaurtiketa egin den lekua eta jokaldiaren eraginkortasuna bereizi dira. Beraz plantilla, aldagai horiek guztiak bilduko dituen taula bat da (irudia 4).

| | |
|------------------------|------------------------|
| Denbora | 0'15' |
| | 16'-30' |
| | 31'-45' |
| | 46'-60' |
| | 61'-75' |
| | 76'-90' |
| Jaurtiketa aldea | Eskuin |
| | Ezker |
| Jaurtiketa hanka aldea | Eskuin |
| | Ezker |
| Jaurtiketa modua | Luze |
| | Motz |
| | |
| Baloia(n) norabidea | 1 zutoina |
| | Erdira |
| | 2 zutoina |
| | Bakarkako jokaldia |
| | Erdiraketa |
| | Atetik urrundu |
| | |
| Bigarren jokaldia | Gola |
| | Errematea atera |
| | Errematea atetik kanpo |
| | Aurkariak urrundu |
| | Aurkariak kanpora |
| | Kanpora |
| | |

Irudia 4. Plantilla osatzen duten dimentsio eta kategoria sistemak

Bestalde, bideo irudiak murriztu eta egokitzekeo Paint marrazte programa erabili da. Aztertutako taldeen inguruko informazio gehiago bildu da, emaitzak ateratzean, erabilitako laginaren zehaztasun handiagoa izan eta ondorio sakonagoak lortzeko. Hala nola, denboraldiko sailkapena (irudia 5), sartutako eta jasotako golak edota denboraldian lortutako puntuak, Txapeldunak.com: Fútbol femenino vasco (txapeldunak.com) izeneko web-orrira eta Marca (marca.com) aldizkari elektronikora ere jo da.

| | TALDEAK | Punt. | I. | Be. | Ga. | | TALDEAK | Punt. | I. | Be. | Ga. | | TALDEAK | Punt. | I. | Be. | Ga. | | |
|----|-------------------------|-------|----|-----|-----|----|--------------|----------------------|----|-----|-----|----|---------|-----------|----------------------|-----|-----|----|----|
| 1 | FC Barcelona | 30 | 24 | 4 | 2 | 1 | FC Barcelona | 30 | 25 | 4 | 1 | 1 | 1 | Barcelona | 77 | 25 | 2 | 2 | |
| 2 | Athletic | 30 | 23 | 5 | 2 | 2 | 2 | Athletic | 30 | 22 | 3 | 5 | 2 | 2 | Atletico Madrid | 69 | 20 | 9 | 1 |
| 3 | Athletic Femenas | 30 | 20 | 8 | 2 | 3 | 3 | Atletico Femenas | 30 | 16 | 6 | 8 | 3 | 3 | Athletic Club | 65 | 19 | 8 | 3 |
| 4 | Levante | 30 | 21 | 2 | 7 | 4 | 4 | Valencia | 30 | 15 | 6 | 9 | 4 | 4 | Valencia | 59 | 17 | 8 | 5 |
| 5 | Espanol | 30 | 18 | 9 | 8 | 5 | 5 | Rayo Vallecano | 30 | 14 | 9 | 7 | 5 | 5 | Levante | 55 | 15 | 10 | 5 |
| 6 | Rayo Vallecano | 30 | 14 | 7 | 9 | 6 | 6 | Levante | 30 | 14 | 9 | 7 | 6 | 6 | Rayo Vallecano | 47 | 13 | 8 | 5 |
| 7 | Prainsa Zaragoza | 30 | 14 | 3 | 13 | 7 | 7 | Real Sociedad | 30 | 10 | 10 | 10 | 7 | 7 | Espanol | 43 | 12 | 7 | 11 |
| 8 | Sant Gabriel | 30 | 11 | 7 | 12 | 8 | 8 | Sporting Huelva | 30 | 11 | 7 | 12 | 8 | 8 | Sporting de Huelva | 41 | 11 | 8 | 11 |
| 9 | Sporting Huelva | 30 | 11 | 5 | 14 | 9 | 9 | Sant Gabriel | 30 | 9 | 7 | 14 | 9 | 9 | Santa Teresa | 34 | 9 | 7 | 14 |
| 10 | Real Sociedad | 30 | 9 | 6 | 15 | 10 | 10 | Collerense | 30 | 10 | 4 | 16 | 10 | 10 | Oviedo Moderno | 32 | 8 | 8 | 14 |
| 11 | Levante Las Planas | 30 | 9 | 5 | 16 | 11 | 11 | Espanol | 30 | 8 | 8 | 14 | 11 | 11 | Real Sociedad | 30 | 7 | 9 | 14 |
| 12 | Sevilla | 30 | 8 | 6 | 16 | 12 | 12 | Transporte s Alcaine | 30 | 8 | 7 | 15 | 12 | 12 | Collerense | 25 | 7 | 4 | 19 |
| 13 | Valencia | 30 | 9 | 3 | 18 | 13 | 13 | Oviedo Moderno | 30 | 6 | 12 | 12 | 13 | 13 | Transporte s Alcaine | 25 | 5 | 10 | 15 |
| 14 | Collerense | 30 | 8 | 5 | 17 | 14 | 14 | Sevilla | 30 | 7 | 5 | 18 | 14 | 14 | Fundación Albacete | 25 | 6 | 7 | 17 |
| 15 | Comares Llanos Olivenza | 30 | 3 | 7 | 20 | 15 | 15 | Granada CF | 30 | 5 | 7 | 18 | 15 | 15 | Sant Gabriel | 23 | 7 | 2 | 21 |
| 16 | Legunés | 30 | 0 | 1 | 29 | 16 | 16 | Levante Las Planas | 30 | 5 | 4 | 20 | 16 | 16 | Sevilla | 15 | 4 | 9 | 23 |

Irudia 5. Superligako 2012-2013, 2013-2014 eta 2014-2015 denboraldietako sailkapenak (Txapeldunak, 2015)

Berdez markatutako postuak behin liga amaituta Espainiako Erreginaren Kopa jokatzeko sailkatzen dira eta gorritz markatuta adierazten direnak hurrengo urtean bigarren mailan jokatu beharko dute.

- Prozedura:

Kornerrak aztertze bideo analisia, hau da behaketa bidezko metodologia nahiz analisi notazionala erabili ziren. Behaketazko metodologia, bere adierazpen egokiarekiko ageriko errealitatearen hautematea artikulatzera bideratutako prozedura da. Erregistro objektibo, sistematiko eta testuinguruan sortutako berezko jokaeraren espezifikotasuna eta kodifikazio egoki bat diseinatu eta aztertuta, emaitza fidagarri eta erabilgarria eskaintzen ditu (Silva, 2011).

Kasu guztietan, partiduaren iraupen osoko grabaketak ziren arren, aztertutako jokaldia korner jaurtiketaren unetik, baloia berriz kanpora atera edota atletik urrundu bitartekoak izan ziren.

Azterketarekin hasi aurretik, partida guztiak ikusi ziren, partidako emaitza eta kórner jaurtiketak burutzen ziren partiduko momentua apuntatu ziren, aurrerago kórner jokaldiak bakarrik erreproduzitu ahal izateko. Kornerra gauzatutako uneko emaitzak ere apuntatu ziren.

Partida osoa ikustean, sor zitekeen nekea ekidin nahi zen jokaldiak aztertzerakoan zehaztasun handiagoa izateko.

Kórner guztiak hiru aldiz ikusi ziren, eta aztertzeko hartutako kriterioa guztietan gertatzen zela egiaztatu zen. Lehenengo bi ikuskapenak egun berean egin ziren, behaketaren egoera ezberdina izan ez zedin eta ahalik eta objetibotasun handiena lor zedin. Azken aldiz, astebetara behatu ziren jokaldiak berriz, aurreko datu bilketa zein zen jakin gabe, gero konparatu eta emaitzen arteko aldea berdina zela ziurtatzeko.

Errendimendua aztertzerakoan kontuan hartutako faktoreak ondorengoak izan ziren: kórnera jaurtitzeko aldea (eskuin edo ezkerra), jaurtiketa gauzatutako hanka (eskuina edo ezkerra), jaurtiketa gauzatzeko modua (luze edo motza), jaurtiketaren helmuga puntua (lehenengo zutoina, erdira edo bigarren zutoina eta bakarkako jokaldia, erdiraketa edo atetik urrundu) eta azkenik, jaurtiketaren eraginkortasuna mailakatu ziren (gola, errematea atera, errematea atetik kanpora, aurkariak urrundu, aurkariak kanpora bota edo jaurtiketa kanpora), gola sartzeko arrisku gehien sortzetik, aurkariak urrundu eta kanpora botatzeraino. Kasu horietan gerta zitezkeen ekintzak apuntatu eta aldagai guztiak kontutan hartu ziren, aurrerago kórner jaurtiketa batean ematea posible ziren kasu oro biltzeko.

Gainera, kórnera ateratako partiduko unea , 0'-15' (T1), 16'-30' (T2), 31'-45' (T3), 46'-60' (T4), 61'-75' (T5) eta 76'-90' (T6) kontuan hartu eta bereizi ziren, partiduko une ezberdinetan kórner jaurtiketa batek izan zezakeen garrantzi ezberdintasuna egiaztatu edo ezeztatzeko besteak beste.


Bestalde, partidu bakoitzean gauzatutako ekintzak ere bereizi ziren, ligako une, txapelketa, norgehiagoka zuzen edota partiduan emandako emaitzak eraginik ote duen jakiteko.

Irudia 6. eta 7.ak adierazi bezala, kórnera ateratako zelaiaren eremua, lau zonatan banatu zen. Motzean ateratako jokaldiak, jaurtitako aldetik gertuen zegoen eremuan

(M) gauzatutakoak zirela esan zen. Hortik kanpoko jaurtiketa oro jaurtiketa luzetzat (L) hartu ziren. Horiek gainera, hiru maila ezberdinetan banatuko dira area barruan jaurtiketak hartu zuen luzetasunaren arabera. Lehenengo zutoineko jaurtiketak (1) eremuan eman zirenak dira, erdikoak (E) eremuan emandakoak eta azkenik bigarren zutoineko jaurtiketak (2) eremura bideratutakoak. Kamerak jarri ziren eremua (Kam) markatua dago irudietan.



Irudia 6. Kornerraren ezker aldeko arearen zona ezberdinak



Irudia 7. Kornerraren eskuin aldeko arearen zona ezberdinak

Aldagai eta kategoria hauen banaketak, emakumezkoen goi errendimenduko futboleko eraginkorra izan daitekeen kornerraren errutina identifikatzeko ahalbidetuko du.

Kornerra jaurtitako aldearen eta ateratako aldearen arteko lotura zein izan zen jakin nahi da, elkar eragiten zuten jakiteko. Baita jaurtiketak har dezakeen norabidea eta helmugak kornerraren eraginkortasunean eragin zuzenik ote zuen ere. Horrela, gol aukera gehien sortzeko aukera dagoen eremua identifikatu eta entrenamenduetan jokalariek lantzeko aukera izan dezakete.

Beraz, lana burutzerakoan emandako pausuak taula 3.an adierazitakoak dira:

| | |
|----|--|
| 1 | Bideoak lortu: bideo kamera eta youtuberez bidez |
| 2 | Partida guztiak ikusi |
| 3 | Korner jokaldiak identifikatu eta unea apuntatu |
| 4 | Kornerrean eman daitezkeen ekintza guztiak biltzea |
| 5 | Kornerra gauzatuko den eremua mugatzea |
| 6 | Ekintza horiek taula eta excel batean adieraztea |
| 7 | Korner jokaldiak ikusi eta aztertzea |
| 8 | Datuak tauletan biltzea |
| 9 | Datu basea sortzea |
| 10 | Tauletako datuak Excelera pasatzea |
| 11 | Datuak IBM SPSS statistic programara pasatzea |
| 12 | Excel eta IBM SPSS statistic programetan ekintzen estatistikak ateratzea |

Taula 3. Ikerketaren prozeduran emandako urrats nagusiak

- Data analisia:

Microsoft Office Excel 2013 eta Microsoft Office Word 2013 izeneko programa informatiboen bidez gauzatu zen bai lan idatzia, baita behaketaren datu biltzea ere. Errendimenduaren adierazleen portzentajeak aurkitu eta grafiko bidez adierazi ziren. Gainera, datuen analisirako, IBM SPSS Statistics (Statistical Package for the Social Sciences; StatSoft, USA) 23 programa informatiboa erabili zen.

Hasteko, planillan bildutako datuak, Microsoft Office Excel 2013an dira. Jarraian, Excelean bildutako datuak IBM SPSS Statistics 23 programara exportatu ziren .sav artxibo moduan. Erabilitako froga estatistikoak honako hauek izan ziren:

- Estatistika deskriptiboa erabili zen batz besteko balioak eta horien desbideratze estandarra ezagutzeko.
- Frekuentziak erabili ziren, korner jaurtiketen eta hauek osatzen dituzten aldagai ezberdinen kopurua eta portzentajeak (%) ezagutzeko.
- Taula gurutzatuak sortu ziren, korner jaurtiketa osatzen zuten aldagai ezberdinek izan zuten eraginkortasuna ezagutzeko.
- X^2 (Pearsonen Chi- cuadrado) kontraste estatistikoa eta kontingentzia koefizienteak erabili ziren taula gurutzatuetako aldagai nominalen arteko erlazioa elkarren egiaztatzeko, %95ko konfiantza mailarekin.

EMAITZAK

2012-2013, 2013-2014 eta 2014-2015 denboraldietatik aztertutako 51 partiduetan, taula 5.an adierazten den moduan, 402 korner jaurtiketa burutu ziren partiduko batz besteko $7,88 \pm 2,97$ korner jaurtiketa. Horietatik 188 korner batz beste $3,69 \pm 2.54$, lehenengo zatian atera ziren eta gainontzeko 214 kornerrak bigarrenetan batz beste $4,2 \pm 2.09$. Eraitza hauek egiaztatuta geratzen dira ateratako korner kopurua, hamabost minututako partiduko uneekin erlazionatzean (taula 4). Bertan ikus daitekeen moduan, ez dago alde handirik interbalo ezberdinen arteko korner jaurtiketa kopuruetan, nahiz eta bigarren zatiko azken hogeita hamar minututan ezberdintasun nabarmenagoak agertu ziren. Hau horrela, 0'-15' interbaloan kornerrak %15,42a jaurti ziren, 62 korner; 16'-30' bitartean %14,68a, 59 korner; 31'-45' bitartean %6,67a, 67 korner; 46'-60' bitartean %13,18a, 53 korner; 61'-75' bitartean %18,91a, 76 korner eta 76'-90' bitartean %21,14a, 85 korner.

| Aldagaia | | Frekuentzia | % | % batuketa |
|---------------------|--------------------|-------------|--------|---------------|
| Iraupena | T1 | 62 | %15,42 | %15,42 |
| | T2 | 59 | %14,68 | %30,1 |
| | T3 | 67 | %16,67 | %46,77 |
| | T4 | 53 | %13,18 | %59,95 |
| | T5 | 76 | %18,91 | %78,86 |
| | T6 | 85 | %21,14 | %100 |
| Aldea | Eskuin | 218 | %54,2 | %54,2 |
| | Ezker | 184 | %45,8 | %100 |
| Hanka | Eskuin | 289 | %71,9 | %71,9 |
| | Ezker | 113 | %28,1 | %100 |
| Aldea- hanka | Eskuin eskuin | 120 | %29,85 | %29,85 |
| | Eskuin esker | 101 | %25,12 | %54,97 |
| | Ezker esker | 13 | %9,23 | %64,2 |
| | Ezker eskuin | 168 | %41,79 | %100 |
| Mota | Luze | 333 | %82,84 | %82,84 |
| | Motz | 69 | %17,16 | %100 |
| Helmuga | 1 Zutoina | 164 | %40,8 | %40,8 |
| | Erdira | 98 | %24,38 | %65,18 |
| | 2 Zutoina | 71 | %17,66 | %82,84 |
| | Bakarkako jokaldia | 26 | %6,47 | %89,31 |
| | Erdiraketa | 41 | %7,8 | %97,11 |
| | Atetik urrundu | 2 | %2,89 | %100 |

Taula 4. Korner jaurtiketen ohiko errutinak aldagai ezberdinak behatuz

Goi errendimenduko partidetan zehar 8 korner jaurtiketa aukera inguru sortzeak emaitzan eragin dezakeen arren, gol aukera sortzeko modu bikaina baita, aztertutako partiduetako emaitzen eraginkortasuna aztertzerakoan (taula 5), ez dator guztiz bat esandako horrekin. Izan ere, aurkariak urrundutako baloiak nagusitu ziren, jaurtitako korner guztien %60, 45 zirelarik. Bestalde, golean amaitutako jokaldiak azken postuan geratu ziren %0,5eko portzentajeaz, 51 partiduetan korner jokaldiz 2 gol bakarrik sartu baitzituzten. Gainontzekoak, erasoko taldeak atetik kanpo errematatutako kornerrak


(%16,67), kanpora (%9), aurkariak kanpora (%7,66) eta errematea atera zuzenduta (%5,72) sailkatu ziren besteak beste.

| Eraginkortasuna | Batuketa | 1 zatia | 2 zatia |
|---------------------------------------|-----------------|-----------------|-----------------|
| Gola | 2 (%0,5) | 2 (%100) | 0 |
| Errematea atera (Ea) | 23 (%5,72) | 5 (%21,74) | 18 (%78,26) |
| Errematea atetik kanpora (EaK) | 67 (%16,67) | 24 (%35,82) | 43 (%64,18) |
| Aurkariak urrundu (Au) | 243 (%60,45) | 120 (%49,38) | 123 (%50,62) |
| Aurkariak kanpora (Ak) | 31 (%7,66) | 15 (%48,39) | 16 (%51,61) |
| Kanpora | 36 (%9) | 22 (%61,11) | 14 (%38,89) |
| TOTALA | 402 (%100) | 188 (%46,77) | 214 (53,23) |

Taula 5. Korner eraginkortasuna partiduko bi zatietan


Korner errutinen azterketarekin jarraitu eta ohikoena den sekuentzia aztertzen jarraitzeko, korner jaurtiketaren aldearen eta jaurtiketa burutzeko erabili zen hankaren aldearen inguruan atera ziren emaitzak adieraztea ezinbestekoa da. Baita kornerra burutzeko erabakitako modua eta baloia heldu zen eremua zein izan ziren jakitea ere.

Jaurtiketa egin zen aldea eta erabilitako hankaren emaitzekin hasiz ikusi da goi errendimenduan jokatzeko duten emakumezkoen taldeek orokorrean, kornerra jaurtitako aldearen aurkako hankarekin (hanka aldatuz) jaurtiketa gehiago burutu zituztela, korner guztietatik 269, %66,91a (irudia 8). Hala ere, datu hau ez da berdina bi hanken kasuan, izan ere, eskuin aldetik ateratako korner gehienak, hanka berarekin ateratakoak izan ziren, 120 guztira, korner guztien %29,85a (taula 4).



Irudia 8. Korner jaurtiketa ateratako alde eta hankan oinarrituta

Gainera, ateratako alde bakarrik kontuan hartuz gero, eskuin aldetik ateratako kornerrak nagusitu ziren, korner guztien %71,89a. Ezker hankaz ateratako jaurtiketak %28,1a izan zirelarik (taula 4, irudia 9).




Irudia 9. Korner jaurtiketan ateratako hankaren aldean oinarrituta

Kornerra ateratzeko moduari dagokionez, korner luzeak ateratzea erabaki zuten kasurik gehienetan (taula 4). Korner guztietatik 333 atera baitziren luzez, ia %83a.

Errutinarekin amaitzeko, baloiak hartutako eremua aztertzea geratzen da (taula 4). Korner motaren arabera, hiru helmuga ezberdin bereizi dira, sei guztira, nahiz eta taula 4.an denak batera adierazi.

Taula 4.an argi ageri den moduan, lehenengo zutoinera joandako baloiak gailendu ziren guztien gaineratik. Izan ere, jaurtitako korner guztietatik 164 lehenengo zutoinera bideratu zituzten, %40,8a. Bigarrenik, jaurtiketak bi zutoinen arteko eremura bideratzeko joera izan zuten taldeek, 98 eremu horretara bidali baitzituzten, %24,37a. Luzez eginiko jaurtiketako baloi kopuru baxuena 2 zutoinera bideratuak izan ziren, 71 jaurtiket %17,66a.

Korner laburrei bakarrik begiratzuz gero (irudia 11), behin kornerra labur aterata, erdiraketa egitea erabaki zuten taldeek egoera gehienetan, 41 kasutan hain zuzen ere, jaurtitako korner laburren %59,42tan. Ondoren, bakarkako jokaldiak izan ziren nagusi %6,47 kasutan, atetik urrundutako jokaldiak azken postuan kokatuz %0,5etan.



Irudia 11. Korner motzen atera osteko ekintza

Ikerketa honen bigarren helburu nagusia gogora ekarriz, hau da, goi errendimenduko emakumezkoen futboleko korner jaurtiketek duten eraginkortasuna aztertzea, emaitzak ez dira oso positiboak erasoari dagokionez. Kornerra osatzen duten aldagai ezberdinen (aldea, hanka, partiduko unea, helmuga eta mota) eraginkortasuna identifikatu da kontingentzia taula batzuen bidez, sei mailatan

bereizirik (gola, errematea atera, errematea atetik kanpo, aurkariak urrundu, aurkariak kanpora eta zuzenenan kanpora).

Gainera, aurreko aldagaien eta errematea lortzearen arteko erlazioa aztertu da, hau da, X^2 kontraste estatistikoa erabili da, %95eko konfiantza mailan kontuan hartuta, aldagaien artean erlazio determinante edo eragilerik ote dagoen jakiteko.

Taula 6.an ikus daitekeen moduan, partiduko lehenengo hogeita hamar minutuetan sartu zituzten ikerketa osoan bildutako bi golak, lehenengo hamabost minututan bat eta hurrengo hamabost minutuetan bestea. Hala ere, erremate gehiago gauzatu ziren bigarren zatiko azken hogeita hamar minutuetan. Bi zutoinen artera bideratutako jaurtiketen gehiengoa ere denbora tarte horretan gauzatu zen. Bi interbaloetan 8 jaurtiketa atera errematatutako jaurtiketen %34,78a.

Kanpora errematatzea lortutako jaurtiketei dagokienez, 61'-75' minutuen artean agertu ziren kasu gehienak, horien %23,88a hain zuzen ere. 76'-90', 46'-60', 16'-30', 0'-15' eta azkenik 31'-45' minutu tarteek jarraitu zieten, %20,9, %19,4, %13,43, %11,9 eta %10,45ko portzentajez.

| Alde hanka | T1 | T2 | T3 | T4 | T5 | T6 |
|----------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|
| Gola | 1 %50 | 1 %50 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Ea | 1 %4,42 | 2 %8,7 | 2 %8,7 | 2 %8,7 | 8 %34,78 | 8 %34,78 |
| EaK | 8 %11,94 | 9 %13,43 | 7 %10,45 | 13 %19,4 | 16 %23,88 | 14 %20,9 |
| Au | 37 %15,23 | 38 %15,64 | 45 %18,52 | 30 %12,34 | 43 %17,7 | 50 %20,57 |
| Ak | 7 %22,58 | 4 %12,9 | 4 %12,9 | 2 %6,45 | 8 %25,8 | 6 %19,45 |
| Kanpora | 8 %22,22 | 5 %13,89 | 9 %25 | 6 %16,67 | 1 %2,78 | 7 %19,44 |

Taula 6. Korner jaurtiketen eraginkortasuna partiduko interbaloen arabera

Bestalde, eraginkortasun maila baxuagoa adierazten dutenak kontuan hartuta, aurkariak bi zatietako azken hamabost minututan lortu zituzten baloi gehien urruntzea, aurkariak urrundutako baloien %20,57 eta %18,52a hurrenez hurren. Aurkariak kanpora jaurtitako baloi portzentaje handienari dagokionez, bigarren zatiko 61'-75' minutuetan izan zen, %25,8koa. Hala ere, lehenengo zatiko lehenengo eta bigarren zatiko azken hamabost minutuetan ere antzeko datuak bildu ziren, %22,58 eta 19,45a. Zuzenean kanpora jaurtitako eta beraz eraginkortasun baxuena adierazten duten jaurtiketen kasuan, lehenengo zatian burutu ziren gehienik, lehenengo hamabost minutuetan horietatik %22,22a eta zatiaren amaieran %25a.

Kornerra jaurtitzeko modua kontuan hartuz, taula 7.an ikusi daiteke, eraginkortasun maila guztietan luzez jaurtitako kornerrak agertzen direla. Hau da, lortutako gol bakarrak luzez jaurtitako kornere bidez gauzatu ziren. Gainera, modu honetara ere erremate gehiago egitea lortu zela ikus daiteke. Atera errematatutako kornereetatik %78,26 kasuetan luzez jaurtitako kornere bidez izan baitziren eta atetik kanpora bideratutakoen %95,52a.

Eraginkortasun maila baxuagoa adierazten dutenei begiratu, aurkariak urrundutako jaurtiketen %83,54a luzez jaurtitako kornere bidezkoak izan ziren. Aurkariak kanpora botatutako jaurtiketen %70,97a eta zuzenean kanpora jaurtitako kornere bidezkoak %66,67a ere luzez jaurtitako kornere bidez gauzatu ziren.

| Alde hanka | Luze | Motz |
|----------------|---------------|--------------|
| Gola | 2 %100 | 0 |
| Ea | 18 %78,26 | 5 %21,74 |
| EaK | 64 %95,52 | 3 %4,48 |
| Au | 203 %83,54 | 40 %16,46 |
| Ak | 22 %70,97 | 9 %29,03 |
| Kanpora | 24 %66,67 | 12 %33,33 |

Taula 7. Korner jaurtiketen eraginkortasuna jaurtitzeko moduaren arabera

Golean amaitutako bi kornerrak, jaurtitako aldearen aurkako hankarekin ateratako korner jaurtiketaren ondorio izan ziren (taula 8). Errematean amaitutako kornerrei dagokienez ere, hanka aldatuaz eginiko jaurtiketetan kopuru handiagoak lortu zirela ikusten da, 14 jaurtiketa, atera errematatutako kornerren %60,87a. Gainera, 4 jaurtiketa, errematatuak izan ziren arren ez ziren atera bideratu, horien %60,87a.

Bestalde, eraginkortasun gutxiena adierazten duten jaurtiketa gehienak ere hanka aldatuaz gauzatutako jaurtiketak izan ziren. Aurkariak urrundutako jaurtiketen %67,9a, aurkariak kanpora botatako baloien %61,29a eta zuzenean kanpora jaurtitako kornerren %72,22a hanka aldatuz gauzatu ziren (taula 8).

Hanka naturalez jaurtitako kornerren kasuan, aurkariak urrundutako baloia nagusitu ziren, 78 jaurtiketa. Jarraian, kanpora errematatutako jaurtiketak 24, aurkariak kanpora botatako 12 eta kornerra zuzenean jaurtitako 10 jaurtiketak kokatzen dira. Azkenik eraginkortasun maila altueneko gola kokatzen da, ez baitzuten gol bat bera ere gauzatzea lortu.

| Alde hanka | Eskuin eskuin | Eskuin ezker | Ezker ezker | Ezker eskuin |
|----------------|---------------|--------------|-------------|---------------|
| Gola | 0 | 1 %0,99 | 0 | 1 %0,6 |
| Ea | 8 %6,67 | 9 %8,91 | 1 %7,69 | 5 %2,98 |
| EaK | 21 %17,5 | 17 %16,83 | 3 %23,08 | 26 %14,48 |
| Au | 71 %59,17 | 63 %62,38 | 7 %46,15 | 102 %60,71 |
| Ak | 11 %9,17 | 3 %2,97 | 1 %7,69 | 16 %9,52 |
| Kanpora | 9 %7,49 | 8 %7,92 | 1 %7,69 | 18 %11,71 |

Taula 8. Korner jaurtiketen eraginkortasuna ateratako alde eta hankaren arabera

Behin jaurtiketa egin ostean, baloia iritsi zen eremua kontuan hartuta, kornerren bidez gauzatutako bi golak, 1 zutoinera eta erdira bideratutako baloien bidez lortu zituzten. Emaitzak ezberdinak dira ordea, atera errematatutako kornerrei begiratzuz gero, izan ere, 2 zutoinera bideratutako kornerrek gailendu baitziren maila honetan, %34,78a.

Atetik kanpo errematatutako jaurtiketen kasuan, golen kasu bera gertatzen da. Izan ere, 1 zutoinera eta erdira bideratutako jaurtiketan gainontzekoengandik gailentzen dira, %40,3a eta %31,34a hurrenez hurren (taula 9).

Aurkariak 1 zutoinera bideratutako baloietatik lortu zituen gehienak urruntzea, urrundutakoen %41,98a hain zuzen ere. Erdira bideratutakoek, %27,57a eta 2 zutoinera bideratutakoek %13,99a jarraitzen diete (taula 9).

Motzean ateratako kornerrei begiratzuz gero, aurkariak urrundutako jaurtiketak nagusitu ziren, aurkariak kanpora jaurtitako eta zuzenean kanpora botatutako kornerrek jarraituz. Taula 9.an ikusiz, motzean jaurtitako kornerren eraginkortasuna baxua izan zela ikus daiteke.

| Alde hanka | 1 zutoina | Erdia | 2 zutoina | Bakarkako jokaldia | Erdiraketa | Atetik urrundu |
|----------------|---------------|--------------|--------------|--------------------|--------------|----------------|
| Gola | 1 %50 | 1 %50 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Ea | 5 %21,74 | 5 %21,74 | 8 %34,78 | 2 %8,7 | 3 %13,04 | 0 |
| EaK | 27 %40,3 | 21 %31,34 | 16 %23,88 | 1 %1,49 | 2 %2,99 | 0 |
| Au | 102 %41,98 | 67 %27,57 | 34 %13,99 | 13 %5,35 | 25 %10,29 | 2 %0,82 |
| Ak | 16 %51,61 | 0 | 6 %19,35 | 6 %19,35 | 3 %6,69 | 0 |
| Kanpora | 12 %33,33 | 4 %11,11 | 8 %22,22 | 5 %13,89 | 7 %19,45 | 0 |

Taula 9. Korner jaurtiketen eraginkortasuna baloiak hartutako helmugaren arabera

Taula 10.an aldagai ezberdinek errematearekiko (errematea: bai/ez) duten erlazioaren signifikazio mailak biltzen dira. Bi dira errematearekin erlazio estatistiko signifikatiboa adierazten duten aldagaiak, modua ($X^2=6,018$, $p=0,014$) eta helmuga ($X^2= 12,856$, $p=0,025$). Gainera ikus daitekeen moduan, helmuga da errematearekin erlazio zuzenena duen aldagaia ($C=0,176$). Moduak jarraitzen dio ($C=0,121$).

| Aldagaiak | | Eraginkortasun kriterioa | | | | |
|--------------------|--------------------|--------------------------|-------|---------------------|-------|--------------------------------|
| | | % BAI | % EZ | X ² | Sig. | Kontingentzia koefizientea (C) |
| Denbora | T1 | 16,13 | 83,87 | 9,830 ^a | 0,08 | 0,154 |
| | T2 | 20,34 | 79,66 | | | |
| | T3 | 13,43 | 86,57 | | | |
| | T4 | 28,30 | 71,7 | | | |
| | T5 | 31,58 | 68,42 | | | |
| | T6 | 25,88 | 74,12 | | | |
| Hanka aldea | Eskuin | 21,11 | 78,89 | 1,842 ^b | 0,175 | 0,068 |
| | Ezker | 27,43 | 72,57 | | | |
| Alde hanka | Eskuin eskuin | 24,17 | 75,83 | 3,195 ^e | 0,362 | 0,089 |
| | Eskuin ezker | 26,73 | 73,27 | | | |
| | Ezker ezker | 33,33 | 66,67 | | | |
| | Ezker eskuin | 18,93 | 81,07 | | | |
| Modua | Luze | 25,23 | 74,67 | 6,018 ^e | 0,014 | 0,121 |
| | Motz | 11,59 | 88,41 | | | |
| Helmuga | 1 zutoina | 20,25 | 79,75 | 12,856 ^f | 0,025 | 0,176 |
| | Erdira | 27,55 | 72,45 | | | |
| | 2 zutoina | 33,33 | 66,67 | | | |
| | Bakarkako jokaldia | 11,11 | 88,89 | | | |
| | Erdiraketa | 12,5 | 87,5 | | | |
| | Atetik urrundu | 0 | 100 | | | |

- a. 0 laukik (0,0%) 5 baino batuketa baxuagoa espero dute. Esperotako batuketa minimoa 12,13a da.
- b. 0 laukik (0,0%) 5 baino batuketa baxuagoa espero dute. Esperotako batuketa minimoa 25,86a da.
- d. 1 laukik (12,5%) 5 baino batuketa baxuagoa espero dute. Esperotako batuketa minimoa 2,75a da.
- e. 0 laukik (0,0%) 5 baino batuketa baxuagoa espero dute. Esperotako batuketa minimoa 15,79a da.
- f. 2 laukik (16,7%) 5 baino batuketa baxuagoa espero dute. Esperotako batuketa minimoa 46a da.

Taula 10. Korner jaurtiketen eraginkortasuna erremate eta errematerik gabearen arabera

Denbora ($X^2=9,830$, $p=0,08$), hankaren aldea ($X^2=1,842$, $p=0,175$) eta kornerra jaurtitako alde eta hankaren aldea ($X^2=3,195$, $p=0,362$) aldagaiak ordea, ez dute significazioa estatistikorik adierazten eraginkortasunarekin.

Ikerketa honetako helburuekin amaitzeko, goi errendimenduko emakumezkoen futbol partida baten norgehiagokaren berdintasunaren arabera kornere jaurtiketaren garrantzia aztertuko da. Hau da, norgehiagoka zuzen eta ez zuzenetan kornere jaurtiketek izan duten eraginkortasuna. Norgehiagoka berdindu edo zuzentzat, bi taldeen artean gol bateko aldea baina txikiagoa zegoen unea hartu da. Norgehiagoka ez zuzentzat berriz, bi taldeen artean bi goletik gorako aldea zegoenean.

Norgehiagoka ez zuzenetan (taula 11), 176 kornere jaurtiketa gauzatu ziren, aztertutako kornere guztien %43,78a, norgehiagoka zuzenetan (taula 11) berriz, 226 jaurtiketa, %56,22a. Aldagaien frekuentzia eta portzentajeei dagokienez, bi kasuetan, errutina berdina errepikatu ziren, hau da hanka aldatuaz (%70,45; %64,4), luze (%80,7; %84,51) eta 1 zutoinera bideratutako (%43,2; 38,05) kornere jaurtiketak nagusitzen dira. Partiduko unea kontuan hartuz gero, bigarren zatiko azken hamabost minutuetan bildu zen kornere jaurtiketa kopuru handiena, %20,5 eta %21,2a.


| Aldagaia | | Norgehiagoka ez zuzena | | | Norgehiagoka zuzena | | |
|--------------------|---------------------------|------------------------|--------|---------------|---------------------|-------|---------------|
| | | Frekuentzia | % | % batuketa | Frekuentzia | % | % batuketa |
| Iraupena | 0-15 | 28 | %15,9 | %15,9 | 35 | %15,5 | %15,5 |
| | 16-30 | 31 | %17,6 | %33,5 | 28 | %12,5 | %27,9 |
| | 31-45 | 30 | %17 | %50,6 | 37 | %16,4 | %44,2 |
| | 46-60 | 20 | %11,4 | %61,9 | 33 | %14,6 | %58,8 |
| | 61-75 | 31 | %17,6 | %79,5 | 45 | %19,9 | %78,8 |
| | 76-90 | 36 | %20,5 | %100 | 48 | %21,2 | %100 |
| Aldea-hanka | Hanka naturala | 52 | %70,45 | %70,45 | 80 | %35,4 | %35,4 |
| | Hanka aldatua | 124 | %29,55 | %100 | 146 | %64,6 | %100 |
| Mota | Luze | 142 | %80,7 | %80,7 | 191 | %84,5 | %84,5 |
| | Motz | 34 | %19,3 | %100 | 35 | %15,5 | %100 |
| Helmuga | 1 Zutoina | 76 | %43,2 | %43,2 | 86 | %38,2 | %38,2 |
| | Erdira | 39 | %22,2 | %65,3 | 60 | %26,5 | %64,7 |
| | 2 Zutoina | 27 | %15,3 | %80,7 | 45 | %19,9 | %84,6 |
| | Bakarkako jokaldia | 10 | %5,7 | %86,4 | 17 | %7,5 | %92,1 |
| | Erdiraketa | 23 | %13,1 | %99,4 | 17 | %7,5 | %99,6 |
| | Atetik urrundu | 1 | %0,6 | %100 | 1 | %0,4 | %100 |

Taula 11. Norgehiagoka ez zuzen eta zuzenetako korner jaurtiketak aldagai ezberdinen arabera

Jaurtiketa motzei dagokienez, norgehiagoka ez zuzenetan baloia bideratzerakoan, erdiraketa bidezkoak nagusitu ziren, %67,65a. Norgehiagoka zuzenetan berriz, bakarkako jokaldi eta erdiraketak kopuru berean bildu ziren, norgehiagoka zuzenetan bildutako kornerren %7,5a kasu bakoitzean. Bi kasuetan, %0,6arekin atetik urrundutako korner jaurtiketak bildu ziren.

Norgehiagoka zuzen eta ez zuzenetako korner jaurtiketen eraginkortasunari dagokionez bestalde, norgehiagoka ez zuzenetan (irudia 12), azterketan bildutako bi

goletatik, bat sartzea lortu zela direla ikus daiteke. Hamar korner jaurtiketa atera errematatzea lortu zituzten, %5,68a eta 30 korner jaurtiketa atetik kanpo errematatzea, %17,05. Bestalde, aurkariak urrundutako jaurtiketak nagusitu ziren, %61,36a. Eraginkortasun baxua adierazten duten kanpora zuzenean bideratutakoek jarraitu zituzten, %8,52a eta azkenik aurkariak kanpora botatako baloiak %6,82a kokatzen dira.



Irudia 12. Norgehiagoka ez zuzen eta zuzenetan jaurtitako kornerren eraginkortasuna

Norgehiagoka ez zuzenetan (irudia 12), azterketan bildutako bi goletatik, bat sartzea lortu zela ikus daiteke. 13 korner jaurtiketa atera errematatzea lortu ziren, norgehiagoka zuzenetan bildutako kornerren %5,75a. Gehiago izan ziren atetik kanpo errematatutako jaurtiketak, 37 hain zuzen ere, %16,37a. Bestalde, eraginkortasun baxuagoa adierazten dutenei begiratzuz, aurkariak urrundutako ekintzak nagusitzen ziren, %59,73az. Kanpora zuzenean jaurtitako jaurtiketek jarraitu zieten %9,3az. Azken postuan aurkariak kanpora botatako jaurtiketak kokatu ziren %8,41az.

EZTABAIDA

Korner jaurtiketak aldakorak dira, partidu, jokalarien ezaugarri edota entrenatzaileak ekintzari irtenbidea ateratzeko moduaren arabera (Sanchez-Flores eta lank., 2012; Maneiro, 2014). Gainera kontuan hartu beharrekoa da ziurgabetasunak eta sorpresak defenditzen duen taldearentzat eragiten duten zailtasuna. Horrela talde erasotzailea horretaz baliatu eta min handia eginez gol aukerak sortzeko aukera izango luke. Hori gutxi ez eta geldikako jokaldi hauek defentsa aurreratu eta jokalaria gehiagok erasoan parte hartzeko aukera ematen dute (Ardá eta lank., 2014).

Bestalde, ematen du, korner jaurtiketen ezaugarrien arabera, eraginkortasuna aldatu egiten dela eta dominanteak izan daitezkeen patroï batzuk ageri daitezkeela (Abreu eta lank., 2012). Partidan zehar horrelako jaurtiketa ugari egiten diren arren, gehienak atezainak edota aurkako taldeko defentsak urrunduak izaten dira, oso gutxi golean amaitzen direlarik (Muñoz eta Alonso, 2009; Sanchez-Flores eta lank., 2012; Ardá eta lank., 2014).

Kontuan hartu behar da korner jaurtiketa burutzeak gaitasun tekniko altua eskatzen duela. Baita, korner jaurtiketetan talde erasotzaileak ez duela inolako abantailarik izaten (jokalaria kopuru edota posizioak esaterako). Defentsako taldearentzat berriz jokalaria kopuruan abantaila bat suerta daiteke. Hori gutxi ez eta defentsako taldea baloia urruntzeaz bakarrik arduratu behar den bitartean, erasotzaileak baloia bi zutoinen artean sartzen saiatu behar du (Sanchez-Flores, 2012). Gainera, Maneirok (2014) erasoko taldearentzat zailtasun gehiago ikusten ditu. Hala nola, jaurtiketa zehatz, denbora egokian, jaurtiketa gauzatuko duen eta taldekideen arteko sinkronizazioa edota norabide zuzena esaterako.

Gizonezkoen inguruan eginiko ikerketa gehienetan ikusi denez, taldeek orokorrean, korner jaurtiketa luzeak motzak baino nahiago izaten dituzte, eskuin aldekoak horien gehiengoa eta ibilbide luzeak edota atezainaren ingurukoak (Ardá eta lank., 2014). Emakumezkoen inguruan halako ikerketarik aurkitu ezin izanak, ikerketa honetan lortutako emaitzak gizonezkoenekin aurretik argitaratutakoekin alderatu behar izan dira.

Emaitzetan adierazi den moduan, ikerketa honetan hiru helburu nagusi nabarmendu ziren, elkarren artean lotura zuzena zutelarik. Lehenik eta behin, emakumezkoen goi errendimenduko futboleko, espainiar ligan, gehien errepikatu eta ematen ziren kórner errutinak zein ziren ezagutzera izan zen. Interesgarria baita entrenatzaile, jokalaria eta gainontzeko taldeko teknikarientzat aurkako estrategia berri eta eguneratuagoak prestatu ahal izateko. Bigarren helburu nagusia berriz, kórner horien eraginkortasuna aztertzea izan zen. Eraginkortasun horrek, talde erasotzaileek izan zitezkeen ahultasunak identifikatu eta entrenamenduetan landu beharreko aspektuak identifikatzea ahalbidetu baitezake. Baita defentsako kórnerrek prestatzeko aukera eman ere, emaitzetan kórner jaurtiketak eraginkorrak zirela atera izan balitz ere. Azkeneko helburu nagusia, norgehiagoka berdindu eta ez berdinduetan, bai kórner errutina bai eraginkortasunean aurki zitezkeen ezberdintasunak aztertzea izan zen.

Kórner errutinen eztabaidarekin hasteko, partidetan zehar bataz beste 7,88 kórner atera zirela ikusi zen. Datu hau asko hurbiltzen da Borrás eta Sainz de Baranda (2005), Carling eta lank. (2005), Silva (2011), Sanchez-Flores eta lank. (2012) edota Ardá eta lank. (2014) ikerketetan aurkitutako emaitzetara. Kórner jaurtiketen eraginkortasuna aztertzerakoan ordea, Borrás eta Sainz de Baranda (2005), Silva (2011) eta Ardá eta lank. (2014) proposatutako datuetara gerturatu dira, portzentajeak %21,8, %26 eta %28,2 izanik. Ikerketa honetan ateratako datuen arabera errematatutako kórnerrek %22,88 izan dira. Mara eta lank.-ek (2012) ateratako portzentajea %30,2 eta Sanchez-Flores eta lank.-ek (2012) ateratakoa %17,2 izanik, ikerketa honetan aztertutako kórnerren eraginkortasunaren gainetik eta azpitik kokatzen dira. Bi zutoinen artera bideratutako erremateei begiratuz gero, portzentajea jaitsi egiten da, %6,22 hain zuzen ere. Borrás eta Sainz de Baranda (2005), Sainz de Baranda eta Lopez-Riquelme (2012) eta Maneiroren (2014) ikerketan lortutako datuak baino baxuagoa da, %8,85; %10,75 eta %9,8 hurrenez hurren. Golean amaitutako jokaldiei dagokienez berriz, Muñoz eta Alonsok (2009) eginiko azterketan kórnerren %5,46a golean amaitu zen. Ikerketa honetako datuekin alderatuz gero, datua oso altua da, ikerketa honen kasuan %0,5a soilik amaitu baitzen golean.

Gainera, jaurtiketen eraginkortasunarekin jarraituz, aipatzekoa da lehenengo eta bigarren denboren artean ageritako ezberdintasunak, izan ere, bigarren denboran zehar jaurtiketa gehiago errematatzea lortu zituzten erasotzaileek. Atera errematatutako kornarren %78,26a eta %64,18a atetik kanpo errematatutako kornurretatik hain zuzen ere. Bigarren denbora horren azken minutuetan gehienak gainera. Horrek erakuts dezake, azken minutuetan, gola sartu eta partidua irabazteko kornerrak izan dezakeen garrantzia. Nahiz eta aurretik aipatu bezala ateratako emaitzek golik lortu ez zela adierazten duten. Abreu eta lank.-ek (2012) ateratako emaitzak ikerketa honetakoekin bat datozen izan ere, partiduko azken interbaloetan, kornor jaurtiketa gehiago burutu eta errematatzea lortu ziren. Hala ere kontrakoa adierazten duten ikerketak ere badaude. Esaterako, Borrás eta Sainz de Barandak (2005) eginiko ikerketan ateratako emaitzen arabera, ez zituzten ezberdintasun esanguratsuak aurkitu ez bi zatien artean ezta interbaloen artean ere. Nahiz eta alde batetik bat datozen partiduko azken hamabost minutuetan kornor kopuru handiagoa burutu zela ikusi baitzuten.

Emaitzen arabera beraz, eta aipatutako ikerketei begiraturaz gero, partiduan zehar sarri ematen den akzioetat jotzen da kornorra, nahiz eta talde erasotzailearentzat eraginkortasun handirik dakarrenik ikusi ez den. Hau horrela, kornerraren funtzionamendua aztertzekeo beharra areagotzen da, baita entrenamenduetan akzioa gehiago landu edo gutxienez, garrantzia handiagoa ematekoa ere. Nekean lantzea ere garrantzitsua izan liteke, jokalariak partiduan zehar aurki daitezkeen egoera errealago bat simulatzeko. Sanchez-Flores eta lank.-ek (2012) eta Ardá eta lank.-ek (2014) esandakoarekin bat dator beraz, hau da, kornerrak gol edota gol aukera iturri garrantzitsu eta nabarmendutzat hartzearen sineskeria okerre kontraesan eginez.

Jaurtiketa burutu den alde eta hankari erreparaturaz gero, kornor jaurtiketa gehienak, kornorra jaurti den alde ezberdineko hankarekin atera zirela ikusi da, jaurtiketen %66,91a. Horrela kornor jaurtiketetan baloiak orokorrean hartuko duen efektua barrurako edo estua izango da, baloiaren mugimendua kanpotik barrurakoa delarik. Horrek, defentsari baloia kolpatzea erraztu diezaiolke baloia kolpatzeko mugimendua egin beharrean, baloiak berengana joateko efektua hartuko bailuke.

Hala ere, jaurtiketa burutzeko erabilitako hankari erreparatuz gero, eskuineko hankaz ateratakoak zirela gehienak ikusi da, korner jaurtiketa guztien %71,9a. Honekin, ondorioztatu daiteke, jokalari gehiago direla eskuindarrak ezkertiarrek baino edo behintzat jaurtiketak burutzen dituztenak. Beraz, lehendik aipatutako emaitzan eragin zuzena izan dezake jokalariaren hanka dominanteak. Izan ere, kontuan izanik jaurtiketa gehienak eskuin hankarekin aterata izan zirela eta taldeek ezin alda dezaketela kornerra ateratzeko aldea, ezker aldeko kornerrak nagusitzen badira, normala da ateratako aldearen aurkako hankarekin jaurtiketa egin eta baloian barrurako efektua hartzea.

Borrás eta Sainz de Barandak (2005) eginiko azterketan gainera adierazi zuten, erremate gehiago lortzen zituztela taldeek eraso dinamiko bat burutzerakoan. Hau da, estatiko baloiari itxaron beharrean, mugimendu ezberdinak egin, aurkaria nahasi eta jaurtiketaren ziurgabetasuna handituz. Keinuek ere garrantzia dutela adierazi zuten. Sanchez-Flores eta lank.-ek (2012) ere ziurgabetasunaren garrantzia azpimarratzen dute bere ikerketan.

Jaurtiketa burutzeko moduari dagokionez, jaurtiketa luzeak egiteko aukera nagusitu da kasurik gehienetan bai emakumezkoen inguruan eginiko ikerketa honetan, baita Ardá eta lank.-ek (2014) gizonezkoen inguruan eginikoan ere. Arrazoietako batzuk, taldearen jokalari erasotzailearen ezaugarriak, baloi altuak errematatze egokiak izan eta entrenamenduetan aurretik landutako jokaldiak izatea izan daiteke (Ardá eta lank., 2014).

Ikerketa honetako lehenengo helburu nagusiaren azterketarekin amaitzeko, gizonezkoen goi errendimenduko futbol partidetan aurretik bildutako emaitzek, ikerketa honetan lortutakoekin izan ditzaketen ezberdintasunak identifikatu nahi dira. Ezberdintasun horren arrazoiak aurkitzen saiatu eta eragin dezaketen faktoreak identifikatzeko besteak beste. Ezberdintasun nagusia, baloiak hartzen duen helmugaren aldagaia kontuan hartzerakoan ageri da. Izan ere, mutilen kasuan, jaurtiketa gehienak, atezainaren eremutik atzera bideratuak izaten dira, hau da bigarren zutoin aldera. Emakumezkoen partidetan ikusi denez, jaurtiketa gehienak, lehenengo zutoinetik gertu joaten dira. Honen arrazoi nagusia, emakumezko eta gizonezkoek ezaugarri fisikoetan izan ditzakegun ezberdintasunak dira.

Emakumezkoek gizonezkoek baino indar gutxiago izan ohi dute eta beraz, jaurtiketak indar gutxiagorekin burutzen dira.

Planteatutako beste helburuetako bat, literaturan aurkitutako kórner aldagarri ezberdinen (aurretik aipatutakoak) eta eraginkortasunaren arteko erlazioa bilatzea izan zen. Horrela, lortutako datuak ordurarte ateratako hipotesi edota teoria ezberdinekin alderatu eta emakumezkoen errealitatea hurbilagotik ezagutzea helburutzat izanik.

Jaurtiketa gauzatzeko aldea eta hankaren arteko erlazioari erreparatuz gero, Borrás eta Sainz de Barandak (2005) ateratako konklusioekin bat dator ikerketa honetan bildutako datuak. Izan ere, sartu diren bi golak, kórnera ateratako aldearen aurkako hankarekin aterata izan dira. Erremate kopuruari dagokionez ere handiagoa izan da aurkako hankarekin ateratakoen kasuan, errematatutako kórnerren %64,13a. Hala ere aipatzekoa da, badirela ikerlari batzuk aurkakoa esaten dutena, Sainz de Baranda eta Lopez-Riquelme (2012) eta Ardá eta lank. (2014) horien artean. Hauen arabera, jaurtiketa eraginkorragoa izateko joera du ateratako aldea eta hanka berdina badira.

Jaurtiketa burutzeko modua berriz gogoan hartuz, jaurtiketa modua eta errematean edo golean amaitu diren kórner jaurtiketak erlazionatuz gero, ez dator bat Sainz de Baranda eta Lopez-Riquelme (2012) eta Ardá eta lank.-en (2014) emaitzekin. Bi ikerketa horietan, jaurtiketa errematatzeko aukera jaurtiketa motzaren bitartez handiagoa dela diote, baina ikerketa honetako emaitzak kontuan hartuta errematatutako kórnerren %91,3a jaurtiketa luze baten ostekoak izan dira. Hala ere, Sainz de Baranda eta Lopez-Riquelmeren (2012) arabera ere, gol gehiago sartzea lortu zituzten jaurtiketa luzez aterata.

Badira hainbat ikerketa, Silva (2011), Sanchez-Flores eta lank. (2012) eta Ardá eta lank. (2014) esaterako, baloiak hartutako eremua eta gola sartzeko eraginkortasunaren artean izan daitekeen eraginkortasunaren inguruan aztertzen jardun direnak. Horien harira, ikerketa honetan ere aztertu den aspektuetako bat izan da. Beraz, ateratako emaitzak ikusirik, gehien errematatu diren jaurtiketak, lehenengo zutoinean izan dira, errematatutako kórnerren %34,78a. Oso gertutik jarraitzen dute erdiko zonak eta bigarren zutoin aldeak, %29,34 eta %27,17arekin. Mareirok (2014)

gizonezkoen kasuan 2. zutoinera bideratutako kórner jaurtiketak jotzen ditu eraginkorrenentzat. Eraginkorrenak izateko ematen duen arrazoia, baloiak defentsa eta atezainaren bizkarra hartu izana da, baloia urruntzea zailduz. Hau da, Aurrerago aipatu moduan, motzez ateratako kórner gutxi errematatzea lortu zituzten. Hala ere, modu horretara errematatutako kórner kopuru handiena, baloia motzean ukitu ostean eginiko erdiraketaren ondorengoak izan ziren.

Ikerketaren azken helburu nagusiari dagokionez, hau da norgehiagoka berdindu edo zuzen eta ez berdindu edo ez zuzenetako kórner jaurtiketen eraginkortasunari begiraturaz, Sanchez- Flores eta lank.ek (2012) esandakoaren arabera, kórner jaurtiketen eraginkortasuna handitu egiten da norgehiagoka zuzenetan, baita talde batek irabazteko edo partida berdintzeko nahia erakusten duenean. Bestalde, Sanchez- Flores eta lank.-ek (2012) lehiaketa eta liga aurrera joan ahala kórner jaurtiketen eraginkortasuna ere handitu egiten dela aztertu zuten. Ikerketa honetan azken hori aztertu ez den arren, norgehiagoka ez zuzen eta zuzenetan kórner jaurtiketek izan duten eraginkortasuna aztertu da.

Norgehiagoka zuzenetan ez zuzenetan baino kórner jaurtiketa gehiago bildu dira, aztertutako guztien %56,22. Hala ere, horien eraginkortasunari begiraturaz gero, antzeko portzentajeak ageri dira bi kasuetan. Esaterako, bietan gol bana egitea lortu zuten, atera bideratutako erremateen portzentajeen kasuan norgehiagoka zuzenetan kórnerren %5,75a izan zen eta ez zuzenen kasuan %5,68a. Kanpora errematatutako jaurtiketetan berriz, norgehiagoka zuzenetan %16,37a izan ziren eta ez zuzenetan %17,05a. Beraz, datuak ikusirik, ez dator guztiz bat Sanchez- Flores eta lank.-ek (2012) aztertutakoarekin. Arrazoieta bat, geldikako jokaldi hauei behar baino garrantzia gutxiago ematea izan daiteke.

ONDORIOAK

Azken urteetan futbolak izan duen bilakaeraren ondorioz, alderdi taktikoak garrantzia handia hartu duela ikusi dut. Geldikako jokaldiek, horien artean kórner jaurtiketek, ikertzaile askoren artean interesa sortu eta eginiko ikerketek entrenatzaile

eta taldeetako arduradunei futbol taldeen inguruko informazio garrantzitsua eskaini diete. Estrategiak eta aurreko prestaketak garrantzia eta indar handia hartu dutela ondorioztatu dut.

Errebisio bibliografiko sakona egin ostean, gizonezkoen korner jaurtiketen errutinetan eta batez ere horien eraginkortasunean kontraesan haundiak daudela ikusi dut. Horrek, ekintza hauen inguruan ezer ziurrik ez dagoela pentsatzera eramán nau.

Beraz, gizonezkoen inguruan eginiko ikerketetan ateratako emaitzak, emakumezkoen inguruan lortutako hauekin alderatuz gero, batzuekin bat datozen heinean, beste batzuek esandakoarekin bat ez datozela ikusi dut. Hala ere, neurri handi batean gehienak bat datoz, korner jaurtiketak partiduko emaitzetan erabakigarriak izan daitezkeen arren, errealitatean emaitzek aurkakoa adierazten dutela. Izan ere, eraginkortasun baxuko jokaldiak izan dira eta gol gutxi eragin izan dituzte. Defentsek jaurtiketetan lan handia egiten dutela ondoriozta daiteke bestalde. Izan ere, jaurtiketa gehienak atezainak edota defentsek urruntzen dituzte. Entrenamenduetan eraso egoeran korner jaurtiketa gehiago landu beharko liratekeela uste dut, baita erasotzaileen posizio eta mugimenduak estrategiaz antolatu ere.

Korner errutina ohikoei dagokienez, gizonezkoen jaurtiketekin alderatuta jaurtiketa laburragoak direla ikusi da. Bi sexuen artean egon daitezkeen ezberdintasunen ondorio izan daiteke. Hau da, emakumezkoek gizonezkoek baino indar gutxiago edukitzea esaterako. Gainera, ezkertiarak diren baino eskuindar jokalaria gehiago dagoela ohartu naiz, behintzat horrela izan da jaurtiketak egin dituztenen kasua.

Partiduko une ezberdinetan burututako korner jaurtiketen inguruan ateratako ondorioa, partiduko azken minutuetan garrantzia hartzen dutela izan da. Nahiz eta eraginkortasun handirik ez dutela sortu ikusi den, kontuan hartzeko aspektua izan liteke entrenamenduetan ekintza hauek lantzeko. Izan ere, jokalaria partiduko azken uneetara nekaturik iritsi daitezke eta jaurtiketak nekepean lantzea ere interesgarria izan litekela uste dut.

Ondorioekin amaitzeko, ikerketa gehiagoren beharra dagoela ikusi dut. Liga, txapelketa edota egoera ezberdinetan ekintza hauek izan dezaketen aldagarritasuna ikusi eta ateratako datuak ziurtasun handiagoz orokortu ahal izateko.

- **ERABILERA PRAKTIKOAK**

Bideo analisia, azken urteetan bai klub bai entrenatzaileen artean asko zabaldu den metodoa da taldeen partiduak aztertzerakoan. Metodo erraz eta nahiko merkea izateaz gain, irudi grafikoen bidez, bai entrenatzaile baita jokalariei ere partiduan zehar burututako ekintza eta akatsak erraz ikustea ahalbidetzen du.

Bideo grabaketak, ordenagailu programa ezberdinen bidez, Kinovea edota “Quickcoach”-aren bidez, moldatu daitezke. Euren abiadura moteldu, iruditan gelditu, angeluak atera edota keinuen abiadurak kalkulatu.

Entrenamenduetan, bideo horietan aurkitutako hutsuneak landu eta jokalarien errendimendua hobetzeko estrategia eta teknika berriak aplikatzea ere erraztu dezake.

Bideo analisisiaz gain, analisi notazionala ere oso lagungarri izan daiteke taldeen errendimenduaren inguruko datu gehiago lortzeko. Entrenatzaileak, partiduan zehar galtzen duen informazioa, zenbaki eta portzentajetan berreskuratzea ahalbidetzen baitu. Metodo hau ere erraza, argia eta merkea da eta gero eta erabiliagoa. Nahiz eta datu batzuk bidean gal daitezkeen, dena apuntatzeko denborarik ez izatea posible delako, partiduaren inguruko estatistika orokorrak ateratzeko egokia da.

Lortutako datu horien bitartez, entrenatzaileek beraien taldeen dinamika sakonago ezagutu eta erabaki edota aldaketak proposa ditzakete taldearen hobekuntza bilatuz.

Ikerketan erabilitako azterketa metodo hauek edozein talderen esku egon daitezke. Maila tekniko nahiz ekonomiko ezberdinetakoen esku hain zuzen ere. Hasi berri, amateur edo profesionaletan ere erabiltzeko egokiak izan daitezke.

- **IKERKETAREN INDARGUNE EDO SENDOTASUNAK**

Ikerketa hau aurrera eraman izanak, aspektu positiboak ekar ditzazkieke emakumezkoen futbolari.

Aukeratutako lagina, Espainiako lehenengo mailako emakumezkoen futbol liga eta kopa haiz zuzen ere, emakumezkoen goi errendimenduko adierazle onak dira. Izan ere, Espainiako jokalaria onenek bertan jarduten dute futbolean. Beraz, lortutako datu eta emaitzen kalitatea bermatzeko abiapuntu dira.

Laginarekin jarraituz, hiru denboralditan zehar burututako 51 partidu aztertu dira, korer jaurtiketa ugari aztertzeko aukera eman dutelarik. Lagina handia izateak, emaitzak orokortzeko aukera ekar dezake eta beraz ondorio sendoagoak lortzea.

Gainera, kalitate goreneko partidu eta bideo grabaketak eskuratzea erraza da. Kalitate onekoak direnez, asko errazten dute behaketaren objetibotasuna. Irudi grafiko argi eskaintzen baitute.

Bestalde, gai honen inguruan, gizonezkoekin eginiko ikerketa ezberdinak kontuan hartu eta horietan ikertutakoa kontuan hartzerakoan ekintza burutzerakoan sor daitezkeen gertaera guztiak kontuan hartzen dira.

• IKERKETAREN MUGAK

Hainbat dira ikerketa aurrera eramatean sortutako oztopo edo mugak. Lehenengo muga, laginaren heterogeneotasun izan daiteke. Hiru denboralditan zehar aztertutako partiduetan parte hartutako taldeen artean, maila ezberdinetako jokalaria ugari daude eta taldeen arteko heterogenitate handia da. Baita korer jaurtiketetan parte hartutako jokalarien teknika maila ere.

Bigarren muga, eskuindarrak diren jokalaria ezkertiarak direnak baino askoz ere gehiago direla da. Horrek, erabilitako hanka eta kornerraren eraginkortasuna aztertzerakoan mugak sortzen ditu, lagin kopuruan alde handia eragiten baitu eta beraz ateratako emaitzak ez dira guztiz zehatzak konparaketa egiteko.

Hirugarren muga, korer jaurtiketa batean eman daitezkeen ekintza ugariak dira. Horrek, korer jaurtiketak aztertzeko diseinatu beharreko planillaren konplexutasuna ekartzen du, eta ekintza guztien aldagarritasuna biltzea zaildu.

Gainera, ekintza asko espezifikatuz gero, milaka korer mota atera daitezke, eta ohiko errutinaren patroia zein den jakitea zailduko luke.

Laugarren muga, aurrekoarekin erlazionatu daiteke. Izan ere, motzean ateratako korerren kasuan, baloiak hartutako helmuga ez da zehazten. Helmugaren ordean, motzean atera ostean gertatzen den ekintza biltzea garrantzitsuagoa dela iruditu zait, baina horrek bi korer moten (luze eta motz) artean baloiak hartutako eremuaren arteko ezberdintasunak konparatzea zailtzen du. Baita baloiak normalean hartzen duen helmuga determinatzea ere.

Bosgarren muga, bideoak aztertzeke espainiar ligako emakumezkoen futboleko lehenengo mailako talde batek eta jokalariek bideoak aztertzeke baimena eman arren, 2008ko Helsinkiko deklarazioan bildutakoa jarraituz, EHUko etika komiteari horiek aztertzeke baimena eskatzerakoan, oztopo asko jarri izana da. Horrekin, nire ikerketa denbora luzez geldirik eduki behar izatea eragin zuen eta bideo grabaketak ikusteko denbora kentzea ondorioz.

Seigarrena, 90 minutuko 51 partidu oso ikusteak izan dezakeen zailtasuna azpimarratu nahi dut. Denbora asko eskatzen du, baita arreta handia ere, jokaldiak ahalik eta zehaztasun eta objetibotasun handienarekin aztertu ahal izateko. Gainera, jokaldi batzuetan, dudak sor daitezke eta minimoa den arren, subjektibotasun puntu bat sor dezake.

Azkenik, errebisio bibliografiko sakon bat egin ostean, nire ikerketaren antzeko ikerketarik ez dut aurkitu emakumezkoen zuzendua eta beraz ezin izan ditut datuak objetibotasun guztiz konparatu. Izan ere argi dago emakumezko eta gizonezkoen ditugun ezberdintasunak, baita bien kasuan futboleko adierazten diren ezberdintasunak. Horrela, gizonezkoen datuak emakumezkoekin alderatzea ez litzake aukerarik zuzenena izango.

• ETORKIZUNERAKO ILDOAK

Errebisio bibliografiko sakon bat egin ostean, gutxi dira orain arte emakumezkoen futbolaren inguruan argitaratutako ikerketak. Gutxi, alderdi taktikoan aztertutakoak eta

beraz gutxi emakumezkoek burututako geldikako jokaldien eta korerren inguruko datuak.

Ez dut nire lana alderatzeko artikulu ezta libururik izan. Hau horrela, lan honen helburuetako bat etorkizunean ikerketa gehiago egiteko bidea irekitzea izan da, interesgarri eta oso erabilgarria iruditzen baitzait partiduen analisiaren bidez jokalarien errendimendua hobetu ahal izatea.

